

TOBIN TASA BESTE URTEBETE BAT ATZERATUKO DA

Europa
8 de mayo de 2014

Maiatzaren 6an Ecofin EBko Finantza ministroen kontseilua batzartu da Bruselan. Finantza salerosketen zergari buruz (Tobin tasa) aritu ziren eta hamar herrialdeek akordio politiko bat sinatu zuten.

Akordio honek proiektua aurrera eramateko borondatea isladatzeko balio du. Finantza tasa 2016ean hasiko dela onartu da, baina baita ere hasieran eragin "mugatua" izango duela. Zergapetutako lehen produktuak akzioak eta zenbait deribatu izango dira.

¿Zer da Tobin tasa?

Tasaren jatorria James Tobin ekonomalariaren teorian aurkitzen da. Tobinek, finantza espekulazioa erregulatzeko asmoz, orain dela 40 urte diru mugimendu orori tasa bat ezartzea proposatu zuen.

Joan den urteko ekainean EBko 11 herrialdek Tobin tasa jartzeko akordioa iragarri zuten. Bruselak tasaren bidez urtero 35.000 milioi euro biltzeko aukera dagoela ziurtatu zuen. Proposamen honen arabera, akzioen eta bonuen salerosketari %0,1eko zerga ezarriko litzaioke, eta 0,01ekoa, finantza produktu deribatuak badira